

EUSKERAZKO KONTUAK



II

Gizon aberatz bat zan izugarrizko kasketosua, iñungo langillek eziñ zion bere gustorik egiñ.

Beñ joan zan arotz naguzi baten gana, eta ala diyo:

—Bigaldu zazu nere echera mutill bat lan batzubek egitera.

—Ongi da jauna, nere kontu.

Arotzak zion bere artean: len ere orren echera bigaldu ditutan langilleak, aserre jiratu izan dira denak..... ¿zein bigalduko ote det?

Langille askoren tartian zeukan baserritar kankallu bat, mutill gisara jo zendo zendua, lanian asi berriya, eta deiturik oni esan zion:

—Zu, Mañubel, artu zazu erremientaren kucha, zuaz onlako eche-tara, eta arkituko zera jaun berdotz batekiñ, eta egin zazu ondo ark agintzen dizun guziya..... baita oya chiminitik zintzilik jartzeko agin-tzen badizu ere.

—Bai jauna, nere kontu; nik egingo det agintzen dubena.

Itz abek esanaz aldendu zan Mañubel, joan zan echeartara, eta gizon aberatz arren aurrean arkitu zanean, esan zuben:

—Egun on; emen naiz ni, ea zer lan egin bear dan.

—¿Zu altzera onlako tokitako arotz mutilla?

—Bai jauna, serbitzeko.

—¿Egingo dezu ondo nere esana?

—Ala uste det.

—Ongi da. ¿Bai aldezu iltze aundirik?

—Ikusi bitza kucha ontakuak.

Ikusi ta aundiynetako bat arturik esan ziyon jaun arrek:

—Atoz nerekiñ, eta esango dizut non sartu bear dezun.

Joan ziran sala-ra eta an zegon armayo espillu-dun eder, eder hat, eta erakutziyaz diyo mutillari:

—Espilluen erdi erdiyan nai nuke sartzia.

Beste edozeñek esango zuben: jauna eziñ liteke, autzi egingo da beriala; bañan gure mutillak iltzia espilluban jarriyaz, ala diyo:

—¿Emen, edo gorago nai du?

—Orchen, orchen.

Itz abek entzunakin batian, jotzen du malluaz entenga ura, eta.....
jzapla! milla puzka egin zan espillua.

Nagusiya algaraz zoratzen ura ikusi zubenian esan ziyon azotzari.

—Tori bost pestako au zuretzat, zu zera gizona zu, ez det oraiñ arte zu bezelako langillerik arkitu Echera joatian esan zayozu nagusiyari, zu bigaltzeko beti eche ontara lanera.

Lan lekura joan da kontatu zubenian gertaera au, ez ziran nola nai-kuak, nagusiyak egin zituben algarak.

JOSÉ ARTOLA.



EUSKERAZKO KONTUAK



Villafranca-ko euskal festetan aldeera-kin saritubak

III

Erri koskor bateko apaiz jaun batek, igande batian egin bear zuben ezkontzeko deya edo pregoya.

Neskacha zan errikoa, oso esaguna; gizon-gaya berriz karabinero erdaldun bat, zeñak zuben izena ta izengaña luzia ta zalla. Onela: *Navalcarnerocuende de los Montijos*.

Pulpitora igo zan gure apaiz jaun ori, paperchua eskuan artu ta, asi zan irakurtzen, bañan egualdi illuna nola bai zegon, ezin zuben ikusi ondo zer jartzen zuben eta..... ala diyo:

Jakiñen añean jartzen zaituztet, pregoitzen dirala gaur: Maria Inasi Errotaberrikoa neskacha, eta..... zera..... zerekua..... Jose..... zera..... ta..... ta..... ¿nola andre Pepaenian beti tutian aritzen da karabinero bizar aundi bat? urasen bera.

Uste det onenbesterekin jakingo dezutela.

IV

Donostiar bat Paris-ko ostatu batian sartu ta eskatu zuben bazka-riya.

Etorri zan mutill sendo bat oso apaña, paltercho batekin; bañan gero ordu erdi batian etzan geyago azaltzen.

Ernegaturik zegon donostiarra, ta noiz bait ere berriz etorri zanian *patilla* dun serbitzari ura, diyo errabiz:

—Allons, garçon, allons.

—Pas possible, monsieur.

Orduan, aserre biziyan, diyo donostiarrak:

—Nere erriyan baleoke ja zer begi andokua emango nikekan!

Morroi arrek entzun zitubenian itz abek, erantzi mantala ta eskuari chistu emanaz diyo:

—¿Neri begi ondokua? ¡Betor, betor, gauza baldin bada onera.....!

.....

Ez da esagutu gerostik bi lagun oberik.

JOSÉ ARTOLA.



EUSKERAZKO KONTUAK



Villafranca-ko euskal festetan al deera-kin sarituak

V

Eche batian ari zan mirabe bat sukaldian, sua pistu, chokolatia chetu eta ontzira botatzen.

Gero morolilluakin *zirri-zarra* eragiten asi zanian alderatu zitzaion bertako galaya, eta erdi parrez esan zion:

—¿Zer ari zera Mariya, chokolatia egiten?

—Ez jauna, desegiten; erantzun zion.

VI

Noel; mastiyak sortu zitubenian, lau urtetan bedeinkatu edo igortzi omen zituben abere edo animalien odolakin:

Lendabiziko urtean indi-ollua (*pavo real*) deritzayonakin.

Bigarreanean chimubenakin.

Irugarreanean legoyenakin.

Eta laugarrenian zerriyenakin.

Askok erariyengatik esaten du:

—Onenbeste goi malla edo gradu ditu erariyak: ogei, edo berrogei; edo dana dala.

Bañan gizon jakintzubenak erori dira kontura, Noek dubela arrazoi aundiya, eta lau malla edo gradu bakarrik dirala, eta ara nola:

Gizon batek lan egin ondoan, eraten badu ardoa neurri onean, poza zortzen zayo bere barruban, eta iristen da indi-ollar moduan, gorputza alai ta pozgarri, lumaren orde, tente ta, ibillera politean.

Au da lenengo gradua.

*
* * *

Eran dezala geyago eta asiko zaizka mugira biziaguak, chistu joaz, bertzuetan, eta atzaparrakin besteren chanmarretik tiraka, bultza ta jostaketan.

Au da chimuben gradua, edo bigarrena.

*
* * *

Bañan segitzen du gogor zurrutian.

Orduan aren itza da nagusi, eskuak ezin geldirik iruki, marruaz, aserre, borroka, eta azkenian okabilla estutuaz edozeini desapiyoka esanaz:

—Datorrela ni gana iñor gauza bada; ara ni emen, bi puzka egingo det edozein.

Au da legoya, edo irugarren gradua.

*
* * *

Eta azkenerarako ezan ta eran pustutzen bada, onik egiten ez diyola chamarra autzi, balantza, *tripakiyak*, edozeiñi zer nai gauza esan, eta

azkeneko abiyadura artu ta ¡zerraldo! lurrera, edo ate iskiñen batera
kristalak autzi arte.

Au badakigi dala zerriyen gradua.

*
* *

Argatik neurriz ona da erariya
baña geyegi dena da kaltegarriya.

JOSÉ ARTOLA.



EUSKERAZKO KONTUAK



Villafranca-ko euskal festetan aldeera-kin sarituak

VII

Santo Tomas batian etorri ziran baserritar bi Donostiko perira, eta zerbait erosi nayian juan ziran *Bola-enea*.

Jende asko zegon an gauzak erosten, eta pipa españetan zutela denbora puska batian egon ziran gure baserritarrek tokiya izan zai.

Noizbait ere joan ziran aurrera eta esan ziyoten, bertako mutillari:

—¿Au alda gauza guztiyak saltzen diran denda?

—¿Bai, ausen da, eskatu nai dezuten guziya. Tira, zuk zer nai zenduben?

—¡Nik akullu bat!

—¡Ja! ¡ja! ¡ja! ¿eta zuk?

—Nik baso bat ardo.

Mutillak farrez lertu nayian esan ziyoten:

—Orain ez daukagu, bañan etorri..... datorren urtian.

Onla ari zirala pasa zan *Banda municipal-eko* musikalari bat biolon aundiya bizkarrian zubela eta ikusi zutenian ala ziyoten:

—¡Ori dek flauta!

—Ez dek flauta, ori dek mandurria.

Eta dendariyari deitu ta esan ziyoten:

—Zu, aiskiria, ori izango da Donostiyan dan *instrumenturik* aundi-
diyena.

—Ez; jotzen dute emen ori baño aundiyagua.

—¿Ori baño aundiyagua? ¿Zer bada?

—Santa Maria-ko organua.

VIII

Erri chiki batian zan obiratzia.

Eliz-funtziyora bildu zan gizon pilla bat, eta ango lanak bukatu ondorean, joan ziran denak, baskariya prestatuba zegon eche batera.

Jaskera politeko gizonak baziran, bost bizitzako chapela, ta estalki edo kapa lurrerañokuakiñ.

Jan otorduan, denak *abo-pala* edo kucharia sartzen zuten kazuela aundi batian, eta geyena *zaplatsu* zutenian, kondar edo atzena gelditu zan.

Orduan pasano batek artzen du bi eskuakin kazuela ura eta españetara eramanaz, diyo:

—Jaunak: pena da kondo au ustea, eta zurrut egitera nua.

Esan ta egin, aboratu du, bañan balumbe geyegikin eta *jzarrats!* an dijuakiyo espaiñ artetik zoñekoaren gañera, ondaturik chamar, gal-tza ta denak.

Au ikusteakuan esan ziyon beste batek:

—¿Gizona, erropa denak ondatu dituza!

—Ta neri zer arduza dit, besterenak dira ta.....

JOSÉ ARTOLA.

EUSKERAZKO KONTUAK



Villafranca-ko euskal festetan aldeera-kin sarituak

IX

Baserrirar mutil bat amodioa egiten asi zan alargun bati.

Emakume ura bizi zan bere amakin baserri aberatz batian, jende diru dunak ziran, baña jeniyo z bizi zamarrak.

Mutillari esan zion bere lagun batek:

—Mutill: ez adiyela eskondu andre errekin. Oyek nai ditek gizona lana gogotik egiteko eta beti beren mendian izateko. Lengo gizona ere minkaistuakin (1) ill zitekan biyen artean.

—Ez nak orren tontua, erantzun zuben; bazekiat zer egiten detan. Amak alabari esaten zion:

—Estayak ongi pasa zazkitzute eta gero errendituko degu gisarajo ori.

Noizbait ere irichi zan egun sonatu estayetako ura.

¡Zer gauza ederra! Umoria, soñua, kantuak, kontuak, ziri-suzko ta bear zan dena.

(1) Disgusto.

Gizon berriyari eman ziyoten diru mordua ¡Bera boltzero..... pizka batian!

Gero joan ziran zortzi egunerako erri aundi ta gauzak ikustera; eta atzeneko egunian echera datozela iya urreratu ziranian, balantza bat egin zuben gizonak andrien gañera eta puzkatu ziyon besua.

¡Eche artako karrasi ta negarrak, Erniyotik adituko ziran!

Atsuak esaten zuben:

—Likiskeriya: ¿zer egin diyozu nere alabari?

Bestiak: ¡Ay! ¡Ay! ¡Ay! ¡Eziñ egon naiz oñazez!

Mutillak berriz ziyon:

—¿Zer nai dute bada? Oitugabia nitzan ni botakin ibiltzen, ta chirrist egin det. Au utza da; nil; lagunduko diyot emaztechuari *Arnobetara* besua sendatzera.

Atsuak errabiz:

—Bañan orrenbeste diru len gastatu dezu, ta ¿ostera gastua egin nai dezu?

—Ez da diruari begiratu bear, lenbizi osasuna; ta bakarrik ezin liteke inor bigaldu ara, eta argatik ni berakin joango naiz.

Esan ta egin.

Joan ziran *Arnobetakuen* gana, eta an andria jarri zuten ongi, bañan pasa arazi zizkaten bertan zortzi egun, eta mutilla bapo besteren kontura ijara guritu zitzayon ederki.

Gero kontuak egiterakuan galdetu ziyon zenarrak sendakiñari:

—¿Zenbat da onen kontua?

—Zortzi duro.

—Tori amasei.

—¿Choratu egin al zera? diyo emasteak, besteren dirua aiza dabilazu.

—Ongi da orla kontua; artu, artu amasei. Zortzi nere andriarenak eta beste zortzi.... laister amagiyarraba etorriko da kostilla enbat konpontzera, eta aurretik pagatzen det arrena.

Emastiari besua sendatu zitzayon, bañan uste det beste kolpe onek barrenen zerbait lertu ziyola. Itzik gabe gelditu zan, papera bañon zurriyago.

Bitartean ama echian zegon azkasalak zorroztu ta zuyaren lepuan askure egiteko.

Etorri ziran bada echera, eta iya bertan zirala esan zuben gizonak:

—Zuaz emastea gora, nik gauza chiki bat egin bitartian.

Igon zanian andria, amak etziyon galdetu nola zegon, baizik lenbiko itza:

—¿Non da? ¿Non da gandul diru ondatzalle ori?

—¡Ai ama! ¡Ez da guk uste genuben tontua!

—¡Nik ilko diñat! Len estayetan oinbeste gastatu eta orain herriz orrenbeste egun alperkeriyan. ¡Nik jan egingo diñat!

—¡Ama, bego isilik! Ori baño geyago egin du. Sendakiñaren kontua zan zortzi duro.

—¡Jesus! ¡Zortzi duro aundi!

—Ta eman dizka amasei.

—¡Eche ondatzalle lapurra!

—Nerien gañeko zortzi duruak emanaz, esan diyo: «Laister etorriko da amagiyarraba beste kostilla enbat konpontzera eta aurretik pagatuta lajatzan det.»

—Ez orise ez. Ori ez da egiya. Ez nau ni arrapatuko.

Ontan igo da mutilla, eta amak arpegi alayakin diyo:

—Oi, gizon ederra, ¿emen al zera? Begira, guk etzaitugu ekarri onera lanera, baizik echeko errespetorako. Lana egiteko billatuko degu morroi jendea.

Itz abek entzunik, mutillak erantzun zuben:

—Nik lana egingo det echien onerako, bañan neurriz, ta galtzak zonian ditutala.

Ama alabak isil isilik burua makurtuaz, ontzat artu zuten tonto arren jakinduriya, eta andik aurrera oso ondo bizitu ziran elkarren laguntzan.

.....

Ama alabak isil Lorituak zituzten maiz; beti zeuden pentsatzen nondik gizona berengana errendituko zuten.

Gizon gazteak igarri zuben joka-bidea etabere artean pentsatu zuben: abek gallantzen badira, neriak egin dik.

Ala bein emaztea ta bere ama leyoan zeudela, atera zuben ukullutik astua, eta berari tiraka esaten ziyon

¡Arri astua!

Onak mugitu nai ez zuben eta gure gizonak atera zuben pistola gerrikotik ta ¡zart! ill ta bota zuben bertan.

Amak leyotik ojuka esan ziyon:

Gizona: ¿zoratu egin al zera?

—Ez ama, ez; ni onla naiz. Gaur astuari *arri* esan ta nere esana egin ez dubelako tiro bat eman diyot; eta bigar edo etzi beotan bati arri edo izo esan ta egiten ez dubenari..... orri bezela bests tiro bat emango diyot.

Etzan geyago emakume ayen abotik itz gogorrik irten.

Eta gizonak esaten zuben:

—*Errespetua beti, galtzak diran tokiyan!*

JOSE ARTOLA.



EUSKERAZKO KONTUAK



X

Erropa denda batian izan zan bear ez bat. Kontrabandua arrapatu zuten eta karabineruak juan ziran jabetutzera ango gauzaz.

Dendako neskacha bi ari ziran apaletatik gauzak erakutzi edo agertzen.

—*Eso también; diyo batek indar aundiz.*

—*Aquello también; beste bizardun batek.*

Neskacha gajuak ala ziyon erdi negarrez:

—Mutur beltz abek dena badaramate. Azkenian geroni eramango gaituzte.

Orduan erdi parrez, ala diyo biyetan senduenak euskara garbiyan:

—Ez, zubek politegiyak zerate gurekin etortzeko.

. i ! .

XI

Jeniyo biziko arotz bat, ari zan eche batian lauiki edo kuadroak jar-tzen.

Aundi aundi bat ipintzeii ari dala alderatu zayo eche jabe edo na-gusiya, ta begiraturik nola ari zan, esan ziyon:

—Zu: nai nuke piska bat gorago jartzia.

Jarri zuben gorago,

—Zu: nai nuke berasiago.

Jarri zuben berago.

—Zu: nai nuke pitin bat eskerrerago.

Ontan diyo bestiak:

—Beorrek ondo ikusten du ortik, bañan nik ez emendik; betor piska bat onuntza, eta iruki beza au, nik atze ortatik begiratu artian.

Eldu ziyon naguziyak lauki aundi arri eta ala diyo langilleak:

—¡Gorasiago! ¡Berasiago! ¡Eskaira! ¡Eskerrera! Ibilla orla gelditu gabe ni etorri bitartian.

—Gizona atoz mezerez, neketan nago.

—Nekatzian bota beza zerraldo.

Eta au esanaz alde egintzuben, utzirik nagusiya larritazun aundiyan.

JOSÉ ARTOLA.

